

3-Funtsezko elkarteak

3.1-Bazkide garrantzitsuak

- Zer da?

Bazkide garrantzitsuak dira GeoSegur pegatinaren garapena, ekoizpena, merkaturatzea eta zabalkundea ahalbidetzen duten erakunde, enpresa edo pertsona estrategikoak. Haien laguntzarekin, produktuaren balio-katea osatzen da: teknologia-hornitzailetik azken bezeroarengana arte.

GeoSegur-en helburua, merkatuan erreferente izatea, horretarako ezinbestekoak dira aliantza sendo eta iraunkorrak.

1- Aliantzak eta Lankidetzak Estrategikoak

GeoSegur-ek hainbat sektoretako enpresekin aliantzak bilatzen ditu produktuaren osagai guztiak kalitatez eta fidagarritasunez eskaintzeko:

1.1- Teknologia aliantzak

GPS txip txikien eta energia baxuko sistemetan espezializatutako enpresekin elkarlana.

IoT (Internet of Things) eta jarraipen adimenduneko software-garatzailleekin lankidetzak, gure aplikazioaren funtzionamendua eta datu-segurtasuna bermatzeko.

Euskal teknologia-zentroekin (adib. Tecnalía, Ikerlan, Vicomtech) akordioak, I+G arloan aurrerapen berriak txertatzeko.

2- Diseinu eta material aliantzak

Pegatina malgu, erresistente eta ikusgaitasun minimoa duten materialetan adituak diren fabrikatzaileekin hitzarmenak.

Kolore eta formatu pertsonalizatuak eskaintzeko diseinu-enpresekin elkarlana, marka nortasuna sendotzeko.

3- Merkaturatze eta banaketa aliantzak

Teknologia-dendekin eta online plataformekin (Amazon, PcComponentes, AliExpress, etab.) hitzarmenak produktuaren hedapen azkarra lortzeko.

Bidai, bizikleta edo patinete denda espezializatuekin akordioak, segmentu zehatzetara iristeko.

Euskal Herriko merkataritza txikiarekin lankidetzak, tokiko sare sendoa sortzeko.

4- Hornitzaile Bereziak

GeoSegur produktua kalitate handiko elementu teknologikoek osatzen dutenez, hornitzaile fidagarriak funtsezkoak dira.

GPS txip hornitzaileak:

- Txip-bereziak eskaintzen dituzten nazioarteko enpresak.
- Txip hori gero gure pegatinaran jarriko dugu, señaletan bat emango digu txip horrek, bakoitzaren objektuak bilatu ahal izateko

Adhesibo berezien fabrikatzaileak:

“Glue Off” edo “Removedor de Pegamento” bezalako produktuen fabrikatzaileekin elkarlana, GeoSegur kit ofiziala garatzeko; hau da, pegatina segurtasunez kendu ahal izateko tresna bakarra.

Ontzi eta logistika hornitzaileak:

Produktua modu seguruan banatzeko eta jasangarritasuna bermatzeko hornitzaileak (material birziklagarriak, eco-packaging).

5- Bezero gehiago eta salmenta gehiago lortzeko bazkideak

GeoSegur-en merkaturatze-estrategia oinarritzen da biderkatzaile komertzialetan eta komunikazio-bazkideetan:

Segurtasun eta teknologia denda handiak: MediaMarkt, Worten edo FNAC bezalako dendetan produktua sartzea.

Online plataforma globalak: Amazon edo AliExpress bezalako plataformetan saltzea, nazioarteko ikusgarritasuna lortzeko.

Bidai eta kirol markak: bizikleta, patinete edo maleta markekin (adib. Decathlon, Samsonite, Xiaomi) kolaborazioak.

Influencer eta sare sozialetako kanpainak: teknologia eta segurtasunaren inguruko sortzaileekin lan eginez, marka ezagutzera emateko.

Aseguru-etxeak: produktua poliza osagarri gisa eskaintzeko, objektuen segurtasuna eta jarraipena konbinatuz.

6- Lankidetzak Estrategikoen Adibideak

Euskal enpresa teknologikoekin aliantza: lokalizazio-sistema propioak garatzeko eta datuen segurtasuna Euskal Herriko zerbitzarietan bermatzeko.

Udal edo erakunde publikoekin akordioak: herritarren segurtasun eta digitalizazio planetan parte hartzeko (adib. mugikortasun jasangarriaren proiektuetan).

Hezkuntza eta unibertsitate mundua: ikasle eta ikertzaileekin prototipo berriak garatzeko eta berrikuntza soziala sustatzeko.

Enpresa pribatuen arteko lankidetzak: GeoSegur aplikazioa beste zerbitzu batzuekin integratzeko, adibidez, aseguruaren edo garraioaren plataformetan.

Laburpena

GeoSegur-en bazkide sare estrategikoa da proiektuaren oinarria:

Teknologia-hornitzaileek kalitate eta berrikuntza bermatzen dute.

Merkaturatze-bazkideek salmenta eta ikusgarritasuna handitzen dituzte.

Erakunde eta aliantza publikoek sinesgarritasuna eta berrikuntza soziala ematen dute.

Horren bidez, GeoSegur ez da soilik produktu bat, baizik eta segurtasun eta lasaitasun digitalaren ekosistema bat, bazkide bakoitzak bere

ekarpena eginez.